

UDAL MUSIKA ESKOLA

2020-2021 ikasturteko informazio orokorra

Leioa, 2020ko ekainaren 29a.

2020-2021 ikasturtea 2020ko irailaren 1ean hasiko da; eskolak, aldiz, hilaren **14an** (lehen eskola-eguna). Horregatik, **UDAL MUSIKA ESKOLAN** matrikula egin duten ikasle guztiei eragiten dien ordutegiei eta taldeei buruzko informazioa ematen da.

- **TALDEKAKO IRAKASGAIEN ordutegiak (teorikoak eta instrumentalak)** jarrita daude. CentrosNET webgunean ikusteko modua dago, erabiltzailea (ikaslearen espediente-zenbakia) eta pasahitza (NANa letrarik gabe) sartu eta gako pertsonala gehituz. Guraso edo ikasle gisa sartzeko aukera dago.
- **BANAKAKO IRAKASGAIEN ordutegiak (instrumentu nagusia eta piano-jotzaile laguntzailea)** irakasleekin adostuko dira irailean, aurrerago adieraziko diren egunetan.

Irailetik aurrera, eskolak hasi aurretik, ikasleek, edo haien legezko arduradunek, adingabeak badira, taldekako irakasgaietako irakasleekin biltzeko aukera izango dute zalantzak argitzeko edo aldaketarik egin daitekeen aztertzeko. Horretarako datak hauek dira:

IRAKASGAI TEORIKOAK

2020ko irailaren 2a (asteazkena) eta 3a (osteguna), 15:30ean.

- a) Musika Hizkuntza.
- b) Irakasgai teorikoak, entzule gisa.

TALDE KORALAK

INSTRUMENTU-TALDEAK

Banda Txiki, Big Band, instrumentu-talde, koru eta Musika Eskolako orkestren ordutegiak esleitu dira.

Ikasle bakoitzak CentrosNET webguneko bere atalean ikusiko ditu.

OHARRA: jakinarazten da akordeoi, gitarra eta piano espezialitateen 3. modulura eta 3. modulu indartura igarotzen diren ikasleek Koru Hastapena dutela taldekako irakasgai instrumental.

Gainerako ikasleentzat Korua irakasgaia curriculumetik kanpokoa da, eta, beraz, aukerakoa da. Espezialitate bakoitzeko ikasketa-planaren arabera ikasi beharko dira irakasgaiak.

BANAKAKO IRAKASGAIK

INSTRUMENTU NAGUSIA

PIANO-JOTZAILE LAGUNTZAILEA.

Zerrendak 2020ko irailaren 4an, OSTIRALA, 16:00etatik aurrera jarriko dira ikusgai, eta agertzen diren egun eta ordu horietan banakako irakasgaien ikasle bakoitzari hitzordua emango zaio ikasturteko eskola-ordutegia irakasleekin adosteko.

Joatea derrigorrezkoa da.

Zerrendak V letratik abiatuta ordenatuko dira, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko otsailaren 7ko Ebazpenari jarraituz.

2020ko irailaren 7an, ASTELEHENA, eta 8an, ASTEARTEA, banakako irakasgaien ikasleek, hala nola Instrumentu Nagusia eta Errepertorioa piano-jotzaile

laguntzailearekin irakasgaiak, ikasturtearen ordutegia zehaztuko dute dagokien irakaslearekin batera, honako egutegi honen arabera:

2020ko irailaren 7a, astelehena. 16:00etatik aurrera.

1. Akordeoia.
2. Kantua.
3. Hari-instrumentuak.
4. Haize-instrumentuak.

2020ko irailaren 8a, asteartea. 16:00etatik aurrera.

1. Gitarra.
2. Perkusioa.
3. Pianoa.
4. Piano-jotzaile laguntzailea (15 minutuko eskola astean).
Kantuari eta Hari- eta Haize-instrumentuari eragiten die.

Ordutegiak antolatzeko zailtasunak direla eta, honako kontu hauek hartu behar dira aintzat:

1. **Ikasleek, edo haien legezko arduradunek, adingabeak badira, gutxienez hiru aukera eskainiko dituzte, egun eta ordu-tarte ezberdinetan.**
2. **Instrumentu-ordua hartu aurretik, ikasleek aldeztu aurretik jakin beharko dute beren espezialitateari dagozkion taldekako irakasgaien ordutegia.**

Ikasleek, edo haien legezko arduradunek, adingabeak badira, beren taldekako ordutegien informazio osoa badaukate, instrumentuko irakaslearekin edo errepertoristarekin harremanetan jar daitezke beren posta elektronikoko korporatiboaren bidez, informazio hori helarazteko eta, horrela, ordutegiak egiten laguntzeko.

Zalantzarik edo galderarik izanez gero, jarri harremanetan Idazkaritzarekin 2020ko uztailaren 15a baino lehen.

Opor on eta agur bero bat.

Informazio gehiago eskuratzeko: www.conservatorioleioa.com